

Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatea (2024ko lehen hiruhilekoa) (Aurrerapen-datuak)

Nafarroako BPGd-a % 2,0 hazi da 2024ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko aldi beraren aldean

2024ko apirilaren 30a

Nafarroako barne-produktu gordinak % 2,0ko hazkundera izan du 2024ko lehen hiruhilekoan 2023ko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoko % 1,5aren ondoren. Nastat Nafarroako Estatistika Erakundeak egindako aurrerapen-estimazioa da.


Hazkunde-erritmoaren azelerazio hori batez ere industrian ikusitako dinamismo handiagoaren ondorio da. Eskariaren bidetik, adierazleek erakusten dute etxeetako azken kontsumoko gastuak bilakaera ona izan duela eta esportazioen suspertze-seinaleak daudela.

Estimazio hori behin-behinekoa da adierazle gehiago izan arte, eta ekainaren 25ean koadro makroekonomikoa argitaratzen denean berretsi edo aldatuko da.

Hiruhileko artean, Nafarroako BPGd-aren aldakuntza-tasa % 0,8koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gaintik.

1. GRAFIKOA

BPGd-aren urte arteko hazkundera bolumenean. Nafarroa, Espainia



Iturria: Nastat. Nafarroako hiruhileroko kontabilitatea. INE. Hiruhileroko Kontabilitate Nazionala



1. TAULA

Barne-produktu gordina. Kateatutako bolumen-indizeak. 2010eko erreferentzia

	2023		2024
	3. HIRUHILEKOA	4. HIRUHILEKOA	1. HIRUHILEKOA
BPGd mp GUZTIRA NAFARROA			
Urtetik urterako hazkunde-tasak (%)	1,7	1,5	2,0
Hiruhilekotik hiruhilekorako hazkunde-tasak (%)	0,2	0,6	0,8
BPGd mp GUZTIRA ESPAINIA^[1]			
Urte arteko hazkunde-tasak (%)	1,9	2,0	
Hiruhileko arteko hazkunde-tasak (%)	0,4	0,6	


[1] Urtaro- eta egutegi-ondorioen datu zuzenduak.



CONTACTO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00





OHAR METODOLOGIKOA

Nafarroako hiru hileroko kontabilitatea sintesi-estatistika bat da, koiunturazkoa, eta helburu nagusia du Nafarroako ekonomiaren azken aldiko bilakaeraren neurketa sistematiko eta koherentea gitea.

Eragiketa honek, hiruhilekoa amaitu eta hilabetera ($h + 30$ egun, erreferentziazko hiruhilekoa h izanik), ekonomian sortutako barne-produktu gordinaren aurrerapen-estimazioa bat eskaintzen du, baita haren osagaietako bakoitzarena ere, eskaintzaren, eskariaren eta errenten bere hiru ikuspegietatik. Era berean, ekonomian enpleguak izandako bilakaeraren neurketa bat eskaintzen du, pertsona okupatuei, lanpostuei, lanaldi osoko lanpostu baliokideei eta lan egindako orduei dagokienez.

Hiruhileko bakoitzeko emaitzak $h + 90$ egun inguruan berrikusten dira, eta ondoren eskuragarri dagoen informazio guztia gehitzen da.

Argitalpen-datan oraindik ez da hiruhilekoaren azken hileko adierazlerik sortu, hala nola: Industria Produkzioaren Indizea (IPI), Zerbitzuen Sektoreko Jarduera Adierazlea (IASS), Kanpo Merkataritzaren Estatistika, etab. Gabezia hori betetzeko, eredu ekonometrikoak erabiltzen dira.

Horregatik guztiagatik, aurrerapen hau lehen estimaziotzat hartu behar da, eta ekainaren 25ean berretsi edo aldatu beharko da, koadro makroekonomikoa argitaratzen denean eta informazio gehiago dagoenean. Hala, bi estimazioen artean aldeak egon daitezke.

- **Eragiketa-mota:** jarraitua, hiru hilean behingoa.
- **Esparru geografikoa:** Nafarroako Foru Komunitatea.
- **Emaitzen erreferentzia-aldia:** hiruhilekoa.
- **Bilketa-metodoa:** sintesi-estatistika.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

[Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatea. 2024ko lehen hiruhilekoa.](#)



CONTACTO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

